

**GERRA AURREKO EUSKAL TERMINOLOGIA JURIDIKOA:  
J.B. EGUZKITZAREN «GIZARTE-AUZIA» (1935)**

**1. Sarrera**

Azken urteotako zientzia ahaleginetan euskara ez da ikusle soila izan, ezpada zuzeneko parte-hartzailea. Zuzeneko eta xumea. Neurri txikian bada ere, gero eta maizago ari dira jakintza desberdinetako arloak euren buruak euskaratzen.

Jakintza munduko testuak euskaraz datozkigu eskura, ziurrenez, ez guk nahi eta gogo izango genukeen adinean. Bai, ostera, gero eta kalitate handiagoz. Langintza horretan dihardute erakunde publiko zein pribatuek, Unibertsitateek barne, ekimen horiei berebiziko bultzada eman nahian.

Zientzia horien eremuetan euskaraz dabilzanek sekulako oztopoak izan ohi dituzte aurrera joateko. Eguneroko gertatzen zaie horiei bestelako hizkuntzetan asmaturiko kontzeptuak euskaraz nola adierazi, horien adiera nondik bideratu eta, ildo beretik ere, zientzia gai askoren esanahia nola moldatu.

Ezinbestean, hitzak behar. Hitzak, terminoak bai, baina zer-nolakoak? Zaharrak, betikoak ala berriak, nonbaitetik euskal eremura ekarri eta hementxe bertaratuak?

Autu eta eztabaida zaharra dugu hauxe, euskara bezainbestekoa. Euskarak berak, inguruko hizkuntzei begira oinarri desberdinak izanik ere, ez du jatorri edo familia bereko mintzairek —

adibidez, latinetik eraturiko erromantzeek— gai honi heltzeko duten tenore eskuragarria.

Aitzitik, senidetasunik ezak zaildu eta behaztopatu egin du garaiotako premiek euskarari egunero aurkezten dioten hamaitzako arazoren irtenbidea.

Arestian esan legez, aspaldiko dema dugu hauxe. Gerraurreko hartan ere, euskarari aupada ederra eman nahi izan zitzaionean, zirt eta zarteko erabaki gertatu zen hori euskararen baitan.

Horren ispilu eta isla aurkitu dugu guk JUAN BAUTISTA EGUZKITZA lemoar abade eta euskaltzainaren langintzan eta, batez ere, haren *Gizarte-aurzia* liburuan. 1935. urtean argitaratu zen idazti horretan daude, gure ustez, gerra denporako Eusko Jaurlaritzak bere lehen burujabetza mugatua eskuratu zueneko euskara juridikoaren hainbat aztarna eta aurrerapauso, lerro hauetan azaltzen ahaleginduko garen moduan.

Argitaraldiari dagokionez, bistan da euskal hitzen inguruko eztabaida pil-pilean zegoela liburu hori inprimategitik atera zenean.

EGUZKITZA bera ere usu izan da hartua euskal literaturan *garbitzalezat*. Horren lekuko eta erakusle gisa beude hemen, besteak beste, MIKEL ZARATEREN hitzak:

*Bizkortasuna, arintasuna, falta jako, sarri askotan, gure Eguzkitza jakitunari. Esatekoa argi ta garbi, neurtuta ta zeatz esan gurarik, lotu eta gogortu egiten dau euskerea. Gaiñera, erdel-usaiña daben berbak alboratu egiten ditu, ta, orrek bere, illundu ta moteldu egiten dauz bere idazlanak (1).*

Iritzi berekoa izan arren, ohartxuagoa du bere ustea Aita VILLASANTEK:

*Eguzkitza se distingue por su prosa didáctica y clara, propia de profesor. No tiene imaginación, ni brillo, ni oratoria torrencial, pero ha estudiado las cuestiones a fondo y sabe*

*exponer las cosas con término justo y exacto. Su dicción es sumamente pura, castigada y correcta. Tal vez excesivamente preocupada por evitar toda la palabra de origen no vasco. Aun para decir socialismo y comunismo tiene que recurrir a formaciones indígenas, en vez de aceptar simple y llanamente estas voces de uso universal. Con todo, no se puede decir de él que vaya por el camino de los "terminachos"; sus palabras son, por lo general, auténticas (2).*

Aldekoak ere baditu lemoarrak auzi horretan. EUSEBIO ERKIAGAK eta NIKOLA ORMAETKEA «Orixe»k goraipatu egiten dute EGUZKITZA:

*ERKIAGA: «Prosa ariña ta erreza da orkoa, gero eta errikoiago; esaldi labur samarrak eta erdalitzak be, inoiz baino ugariago. Orrelakoxea izan zeitekean arrezkero aren idaztemodua, jazo zana jazo izan ez balitz. Gerrateak euskal-literaturan egin euskun urratualdi negargarria, besteak beste» (3).*

*ORIXE: «Gai zailetan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian» (4).*

Halarik ere, baten batek erraz azal dezake bere kezka: zer dugu, ahaztu samar dagoen EGUZKITZA berriro ere gurera ekartzeko? Bi xede: lehena, euskal hitzen arazoari hark eman zion konponbidea plazaratu beharra eta hurrena, konponbide hori bere ingurunean kokatzea, aldiaren emaitzak izan ohi diren horiek moda iragankorren gainetik ikertzeko.

Agindu ere, hauxe agindu behar da ezertan hasi baino lehen: ez ditugu, ez, lemoarraren «keriak» ezkutatuko, ezta estalduko ere. Hutsuneak hutsune eta errakuntzak sarri askotan bidegile, jakin badakigu EGUZKITZAK ez zuela beti ere asmatu bere ahaleginetan.

Saiatu, ordea, gogotik saiatu zen. Eta horri esker gerra aurreko euskal saiakerarik osoena eskaini zigula ere, ezin ukatu, soziologia arloan bederen. Horretarako ondu eta erabili behar

izan zituen aspalditik bere baitan zerabiltzan irizpideak. Horretarako ere, idazluma findu eta zorroztu, bere usteen aldekotasunik sendoena ere ahanzteke. Horren bitarteko, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariaren orrialdeak, bertan ikusten baita ondoren EGUZKITZAK bere ideien sostengu eta aldekotasunerako erabili zituen tankera eta eginbide zehatzak.

Bestalde ere, lan horretan lege, zuzenbide eta ekonomia izan zituen EGUZKITZAK idaztresnak. Horien hitzak ere lanbideak. Ikus ditzagun, beraz, horien bihurriak EGUZKITZAREN idazluman.

## 2. Hizperrigintza juridikoa XIX. mendetik XX. menderako igaraldian

### 2.1. Irizpide nagusiak

Nabari-nabari zaigu, ia nabarmen, XX. mendearen hasieran euskara eraberritzeko nahia. Eraberritze horretan, alabaina, zozta eta motza aurkezten dizkigu hizkuntzaren txanponak: lehenena, euskararen eginkizunarena, alegia, euskarak, XIX. mendean foruak galdu eta gero, euskal gizarte garaitu eta eguneratu hartan zuen edo izan zezakeen geroarena; eta bigarrena, etengabe proposatu eta euskararen egiteko berri horietan ageriko zena: euskara bera trebatu eta zorrozteko ikusmirarena.

Zernahi gisaz, azaleratzen dena ez da gauza berria, lehenagoko zahar hura baino (gogoratu LARRAMENDIREN *ezina egina*). Egunotako berbekin esatekotan, hizkuntzaren *status* eta *corpus* daude hemen dantzan.

Nolanahi ere, esan bezala, kontua aspaldikoa genuen, ARANA, AZKUE eta beste hainbatek lanean hasi baino aurreragokoa, hain zuzen ere.

Egia esan, euskarak islatu behar izan zuen XIX. mendean gainera (eta gainezka ere, esango nuke nik) etorri zitzaion estatu liberalaren antolakuntza osoa. Foruek atzera egin ahala, beste-lako erakunde juridikoak ezarri ziren Euskal Herrian. Erakunde horiek, zalantzarik ez, estatu liberalarenak ziren.

XX. menderako, hala ere, euskara ibilia genuen halako zereginetan. PAGOLAK lan bikaina eskaini dio autu horri, zehazki erakutsiz Donostiako *Lore-jokoak* izenekoek zeregin horretan izan zuten eragina. Horien helburua ere argi zegoen, autore horren esanetan:

*La búsqueda de un «lenguaje oficial de los Juegos Florales» se inicia en 1879 con la publicación de la memoria del certamen de San Sebastián, única exclusivamente en euskera. Durante 1880 y 1881, años que podemos considerar de transición, el modelo cambia y se hace más extenso. El número de neologismos aumenta, a la par que algunos se abandonan definitivamente y otros se sustituyen por nuevos, generalmente del mismo tipo, es decir, tomados del Diccionario Trilingüe. El cambio importante se produce en 1882 al crear el Consistorio un nuevo modelo de convocatoria que, con ligeras variantes, se mantiene durante más de treinta años de Juegos Florales. Esta situación puede apreciarse, por solo citar un ejemplo, en la evolución que sufren los propios títulos de las memorias: Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea... en 1879, Euskerazko Itz-Jostaldiak... en 1880 y 1881, Euskal-Festak... a partir de 1882. La diferencia no reside tanto en el tipo de neologismos empleado, aunque en este terreno también se constatan cambios, como en la fijación de un lenguaje técnico standard de cierta dignidad, acorde con la situación cultural del momento. Cumplido este objetivo, las fórmulas se repiten sin variación durante más de un cuarto de siglo. He aquí una de las «tradiciones léxicas» más duraderas de la historia de la literatura técnica vasca (5).*

Orea areago irauliz, eta PAGOLAK berak eskaintzen digun berbategian miatuz gero, erraz antzematen dira zuzenbidearekin zuzeneko zerikusia duten hitz franko, gehienetan ere, LARRAMENDIREN garbizaletasunetik abiatuta:

*ait-zati (patrimonio), alderdi (partido político), aldimaitz (comisión), aldimaitz zuzendari (comisión directiva), al-*

*diri* (provincia), *anaikidago* (cofradía), *araude* (reglamento), *arazgetu* (jubilado), *argidotar* (ilustre), *arraude* (derecho, privilegio), *arrotzentzako ebandi* (consulado), *artuagiri* (pagaré), *atzen-opamen* (testamento), *aurkezta-ri* (comisionado), *aurrande* (derecho, privilegio), *bainande* (1. condición; 2. pacto), *bakidargo* (comunidad), *bakide* (1. conjunto; 2. unión), *baldinde* (1. capitulación; 2. convenio, pacto), *ballera* (cofradía), *begoitetu* (invertir), *bere-puxka* (patrimonio), *bialkin* (embajador), *billaldi* (sesión, junta), *bilguma* (1. ayuntamiento; 2. consistorio, junta), *burdin-bide* (ferrocarril), *dianagusi* (presidente), *dianagusi ordeko* (vicepresidente); *dianagusitu* (presidir), *dianagusitza* (presidencia), *dieronde* (república), *dierrri* (nación), *dierritar* (compatriota), *egintza* (1. acta; 2. acto), *ekautia* (diputación), *ekautu* (diputado), *ekautuen bilguma* (Diputación como cuerpo), *ekindari* (procurador), *enparatu* (embargar), *epalle* (jurado), *epalletza* (jurado), *epakitzalle* (jurado), *erabakida* (resolución), *erabakitza* (resolución, acuerdo), *erondari* (gobernador), *eronde* (gobierno), *erregezko* (real), *erri eche* (ayuntamiento, casa consistorial), *eskriton(t)zi* (escribanía), *eskudantegi* (licencia), *gallaldi* (privilegio), *gainde* (alteza), *geidiati* (excelentísimo), *gizarande(ak)* (derecho de gentes), *gizarau-deak* (derecho de gentes), *goarpelari* (secretario), *goitikida* (Constitución), *guziz goitagarri* (excelentísimo), *ikasola* (universidad), *interes-kucha* (caja de aborros), *irakasde* (instrucción), *iraungituri* (tradición), *irigoki* (popular), *iritarau* (política), *ichaskinde* (marina), *itsaslapur* (pirata), *jabegabetu* (declarar desierto), *jauntasun* (señorío), *jauntza* (señorío), *lagundi* (1. compañía, sociedad; 2. compañía), *lagunkida* (1. compañía, sociedad; 2. compañía), *laguntza* (compañía, sociedad), *lanari* (trabajador), *lenenkari* (1. presidente; 2. principal), *leñargi* (1. nobleza; 2. noble), *lerden* (derecho, privilegio), *lugorki* (capital), *lurbira* (territorio, comarca, región), *On* (Don), *Ona* (Do-

ña), *on-bereiskuntz* (privilegio), *ondekidatu* (fundar), *ontzidi* (flota, armada naval), *otsandetu* (promulgar, publicar), *otsanditu* (solemnizar), *ots(-)aundi* (solemnidad), *otsaunditu* (solemnizar), *purube* (solariego), *chit geidiati* (excelentísimo), *chit goiti* (excelentísimo), *chit goilitu* (excelentísimo), *chit goitu* (excelentísimo), *uritzaitle* (gobernador), *zuzejaun* (director), *zuzejauntze* (patronazgo), *zuzendari* (1. directivo; 2. director), *zuzende* (dirección, señas) (6).

Bide hori, edonola ere, zapuzturik geratu zen atzetik eta bulkada sendoz zetorren bide berriaren bitartez. ARANA, AZKUE eta beste askok deman ziharduten abiapuntu gogorragoak ezarri nahian, euskararentzako gaurkotze lerroak zehaztu gura horretan.

Kezka eraberritu horietan, bi jomuga nagusi: joscera eta hiztegiarena.

Lehena bazter utziko dugula, euts diezaigogun bigarrenaren lorratzari, hortxe koka baitezakegu oso-osorik EGUZKITZAREN lana.

Ezinbesteko zaigu, lehendaurrez, EGUZKITZAREN azterketari ekin baino lehenago, EGUZKITZA bera bere testuinguruan lekutu eta gorpuztea.

EGUZKITZAK 1935. urtean argitaratzen du *Gizarte-auzia*. Ekonomia eta gizarteaz arduratuta, lemoar abadeak garai hartako errealitateak erabili behar ditu, euskaldunei Eliza katolikoaren doktrina soziala erakusteko.

Erabili ezeze, izendatu ere egin behar ditu errealitate horiek. Aspaldikoak ziren, orduko ere, **sozialismoa**, **komunismoa** eta **sindikalismoa**. Aurreko horiek EGUZKITZAREN luman **gizarteke-ria**, **baltsakeria** eta **alkargokeria** dira.

Arazo horiek eta horien modukoek EGUZKITZAREN lana garbi-zalekeriaren alorrean ikustera eramaten bagaituzte ere, ezinbesteko dugu garbizaletasun hori garaiko auzietan girotzea.

Haria hari, eho dezagun pitin bat oihala, EGUZKITZAREN jokabide horren aztarnak bideratzeko.

Aurretiazko zantzu larramenditarrak aipatu ditugu. XIX. mende hondarrean desagertua eta haizeak eramanda legez ezerez-tua, larramenditar giroak bidea zabaldu zion harrezkerokoari, hots, ARANAK eta AZKUEK ekarri zuten aldikada berriari.

Biok goiztiar jokatu, bi-bion arrangura dugu hiztegiarena. Iritziak, ordea, bata bestearengandik urrun samar. ARANAREN ahalegina, hasiera. Hasierako haren idaztietako edonon ikus daiteke. Adibidetzat har dezakegu, besterik gabe, ARANAK berak idatzirik *Umiaren lenengo aizkidia* liburutxoan jarri zuen eranskina «Ingurti onek daukazan hitz berriak»:

*agintz (mandamiento), aberri (patria), arrotz (extranje-ro), arpide (suscripción), arpidedun (suscriptor), arpi-daldu (suscribir), autetsi (elegir), edesti (historia), orde-lari (representante), luiki (territorio, país), landola (ofi-cina), salneurri (precio), sendi (familia), sengi (hijo, bijas), sendu (engendrar), irazti (libro), ikurrin (bande-ra), ikurton (sacramento), ikastola (escuela), irasi (fun-dar), bildegi (depósito), bazkun (sociedad, compañía)*  
(7).

AZKUEK ere, lanean ziharduen bere aldetik. ARANAREN kasuan hizperri bazen nagusi, AZKUEK berebiziko oinarri eta pisua ematen zien euskal hitzaren tradizioari eta euskararen berezko altxorari, hizperrigintza ahalik eta bazterren erabiliz.

Bi hizperrigintza zeuden jokoan. Bion arteko ezaugarriak ederki asmatu ditu PAGOLAK *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri* lan estimagarrian:

*La labor neologista de AG se desarrolla en tres direcciones:*  
a) *sustitución de términos "alienígenas"*  
b) *creación de voces que satisfagan las nuevas inquie-tudes, y*  
c) *perfeccionamiento de formas indígenas [...].*



*Lo cierto es que Azkue es esencialmente tan purista como AG. Casi no hay neologismo de éste para el que aquél no ofrezca alternativa; en cambio, no puede decirse lo mismo de AG con respecto a Azkue, sin duda porque éste vivió muchos más años. Azkue participa de la obsesión de AG por rebuir los préstamos; lo que le reprochan al creador del nacionalismo vasco es su imperfecto conocimiento del idioma, es decir, básicamente, el quebrantar las leyes fonéticas de la composición y derivación contrayendo en exceso los vocablos [...]; y la creación innecesaria de los mismos por existir en la lengua términos equivalentes por muy remotos y arcaicos que éstos sean [...]. Azkue sólo recurre a la formación de voces nuevas una vez ha agotado esta última vía; en cambio a AG la sustitución de préstamos le conduce casi siempre al neologismo, sin duda porque su conocimiento del léxico vasco es notablemente inferior al de Azkue, pero sobre todo porque, contra la tradición (Oihenart, Larramendi, etc.) que Azkue no interrumpe, para él no existe, si no es en un cierto nivel de abstracción, el léxico vasco patrimonio de todo el euskera. El euskera no es uno, sino varios y cada dialecto ha de habérselas con sus propios recursos (8).*

Tenka horretan biziko da garai horretako euskalgintza. ARANA, esan legez, gazterik hil zen. Hilez gerokoa da, hemezortzi urte geroagokoa, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren sorrera.

Sorrera horretan zuzeneko sortzailea izan ez arren, berehalako euskaltzain osoa zaigu EGUZKITZA. Partaide sutsua, eztabaidetan zuzeneko esku-hartzea duena eta, sarri askotan, AZKUE euskaltzainburuak dituen iritziekin bat ez datorrena.

Aipatu bezala, Sorrerako Euskaltzaindia horri axola zaio euskararen auzia, berba eta joskera ere barne.

Berbategiaren beharrean ikusten du bere burua erakunde horrek eta lanean ere hasten da. Neketsu izango zaio erakunde berriari euskararen berbategi kontua. Ardura horrek bultzatzen

du, ezbairik gabe, bere *Euskera* aldizkariaren lehen alean agertzen den *Itz Berrika*.

Bertan ere eta urruti joan gabe, badira zuzenbideari hertsiro loturiko berbatxoak:

*aberri (patria), abertzaletasun (patriotismo), araudi (regla), arteztzaile (gerente), autarkitalde (turno de votación), aurtarkuntz (votación), auteskunde (votación), baldinkuntza (comisión), batzaldi (reunión), batzorde (comisión), bazkun (corporación, asamblea), bazkunde (corporación), errikoi (patriota), erritasun (ciudadanía), erizpen (dictamen), erki (región), erki-gutundegi (biblioteca municipal, provincial), errolda-izen (título), esertaldi (sesión), gizamaila (jerarquía), gotzain (obispo), guda-yaurtari (gobernador militar), idatzain (secretario, archivista), iraskunde (institución), jakide (cultura), jartzaille (fundador, organizador), lankai (instrumento), legejakintza (ciencia del derecho), lurrisenbatzaille (comisión de toponimia), yaursail (comisión de propaganda), zadorlari (secretario), zarpiketari (gobernador), zeindin (carácter, cualidad) (9).*

Badira, izan ere, Euskaltzaindian autu horretaz arduratzeko gai direnak. Horien artean FEDERICO BELAUSTEGIGOTIA eta BONIFACIO DE ETXEGARAY izan daitezke sonatuenak, ECHAVARRI eta OLEAGA ere ahaztu gabe.

BELAUSTEGIGOTIAK aspalditik esana du, 1909. urtetik, hain zuzen ere, zertan den bere iritzia. Urte horretako herbaldi batean (*Por la lengua nacional vasca*), gero eta menperago ikusten du euskara erdararen. Horri buelta emateko neurriak plazaratzean, jakina, zuzenbidearekikoak ez ditu alboratzen «BELAUSTE-k:

*Como ya hemos dicho anteriormente, Belaustegigoitia no era tan solo un observador de la situación del euskera, sino que proponía soluciones a su decadencia. Entre los objetivos para ayudar al euskera establece el siguiente:*

*Extender documentos privados en euskera y testamentos (10).*

Horretarako, hala ere, euskara bera egokitu behar. Egokitzen horretan hitzak behar ditu euskarak. Orokorrean hartuta, Orozkoko legelariak honetara biltzen du lehia, GRANJAREN iritziz:

*En este aspecto también tuvo que contradecir a muchos de sus correligionarios políticos, fieles a las doctrinas arañistas, por lo que caían en frecuentes exageraciones del léxico, flexiones verbales o construcción sintáctica. Ante ellos, Belaustegigoitia prefiere el idioma menos puro pero más útil como instrumento de comunicación oral y literaria (11).*

BELAUSTEGI bera ere, aiurri beretik:

*Izkera indartsu geyenak anartu dituen itz yakintsu ta bestelako asko geuretu bear ditugu, batez ere gure artean gutxi erabillen diran lanbidekoak, ta ordezeko erraz bat aurkitzen ez zayenak (12).*

ETXEGARAY ere laster ohartzen da gaiaren pisuaz eta bi ikergune berezi hartzen ditu, agi denez, bere zereginetan: lehenak, euskarak antzina bereganatu zituen berba juridikoak batzea du xede. Honela dio berak:

*Creo que ha de ofrecer interés no escaso la formación de un vocabulario de palabras que expresen ideas, que directa o indirectamente trasciendan al orden del Derecho [...]*

*Conviene que diga, antes de pasar adelante, que mi propósito no alcanza a otra cosa que a recoger aquellas formas que entrañan un valor en las múltiples modalidades que afectan a las relaciones derivadas de los conceptos fundamentales de familia, propiedad, sucesión y contratación, o sea a lo que se llama Derecho privado.*

*Han de ser descubiertos mediante las noticias que suministren personas de edad, de inteligencia despierta, y las*

*que proporcione una escrupulosa busca en libros y documentos antiguos. Esta labor ha de ser de eficacia segura, pues el pueblo se acomoda mejor al empleo de palabras que alguna vez se han conocido, aun cuando se hubiere desvanecido la huella de su presencia en el hablar ordinario y corriente, que al de aquellas otras de nueva creación. La experiencia aconseja que se limite a lo puramente indispensable el número de los neologismos, y es punto que debe meditararse si en la materia a que me refiero es conveniente acudir a aquellos en todos los casos, o si al igual de lo que se ha hecho en otras lenguas, basta con tomar de las clásicas tales medios de expresión, adaptándolos al genio del idioma vasco. Problema es éste que habrá de ser resuelto por la Academia con autoridad inapelable (13).*

Bestetik ere, badabilkigu zumañarraren arnasa, Euskaltzaindiaren 1926. urteko azaroaren 25eko bilkuraren agiriak argi erakusten digunez:

*Etxegaray jaunak adierazi digu, egin nai lukela lege-gizon artean dabiltzan itzen iztegitxo euskaldun bat. Oraingoz ez dakar besterik: Belena ta Kardaba nolaz eta zertaz esaten diran. Euskaltzaindiak gogoz entzun diyo ta lenbailen datorrela Etxegaray'k egin nai luken iztegi ori (14).*

Abegi onez ikusi zuen, hortaz, gerra aurreko Euskaltzaindiak zuzenbide inguruko hiztegi asmo berria.

Ez zuen, horatik, Euskaltzaindiak amore eman hiztegi puntuetan. Bertako bi kideok ditugu hurrengoan zirtolari gai horretan, zuzenbidearekin zerikusi zuzena duten iritziak agertuta.

AZKUE lekeitiarrak 1928. urtean daragoio, beste behin ere, eztabaida honi, *Izperriak eratzeko. Burubide bat edo beste* lantxoan. Idazti horretan lekeitiarrak hizperrigintzaren nondik norakoak laburbiltzen ditu, hamabi burubidetan.

Aldera ditzagun hona irizpide edo burubideok:

**Lenengo burubidea.** *Eskaitezen izperri-zalegi izan.*

**Bigarren burubidea.** *Izperri bat sortu-orduko berari dagokion zarririk ote den yakin dezagun.*

**Irugarren burubidea.** *Itz berriaren gaiak ezagunak eta egiazkoak izan bitez.*

**Laugarren burubidea.** *Gai bakoitzaren zentzuna zeatz ezagutu bear da.*

**Boskarren burubidea.** *Itz berriak zeatz sortzeko, gaiak ongi ezagututa gero, Derivación ta Composición-legeak zuztraiz ta zearo yakitea da gauzarik bearrena.*

**Seigarren burubidea.** *Erriaren itz zarrak nola eratuak diren ikusi ta ikertu bear du izberri-zaleak.*

**Zazpigarren burubidea.** *Aldiz aldiz izate bizidunen izenak gauzai ematea egingarri ta egikizuntzat daukat.*

**Zortzigarren burubidea.** *Ceteris paribus edo batez beste izberri laburrak luzeak baino obereskarriago (preferibles) dira.*

**Bederatzigarren burubidea.** *Maizenik, erriak eraturiko itzak, izberriak izan ta ere, yakintsuen burutikoak baino obereskarriago (preferibles) dirudite.*

**Amargarren burubidea.** *Berriren berri itzak asmatu baino obe da itz ezagunetarik atzizki batzuen bidez eratorriak (derivados) ateratzea.*

**Amaikagarren burubidea.** *Erdera batzuetan bezelatsu gure izperri batzuek tankeratzea egokiizat dadukat.*

**Amabigarren burubidea.** *Izperri bat egitaurrean ikus beza bakoitzak itz orrek euskalkiren batean beste zentzunik oteduen (15).*

Gauzak horrela, badirudi bi joera nabarmentzen zirela berbagintzan: alde batetik, AZKUERENA, berbazahar zalea eta hizperri gutxikoa; eta bestetik, ARANA eta aranatarrena, hizperrien jarioa etengabe barneratzen duena.

Erdibidean ALTUBE, eta honen aburuak, artoski bildu eta emanak, Gernikan 1923. urtean Eusko Ikaskuntzak egin zuen Hirugarren Kongresuan:

Honetara, haren irizpideak:

1) Erderazko hitzen kontrakarrekoak nola sailkatu:

*Erderatiko itzen arerijook talde bitan berezi ei-giñaikez. Lenengo, zustraitijak: erderatiko itzik bat ere ontzat emon nai eztituenak; bigarren, biguntxoagotijak: erderatiko itzok ontzat artu geinkezala diñoe oneek, baiña euskera bizijan ikurpen bardiñekorik ezagutzen ezteanean bakarrik (16).*

2) Erderazko hitzen aurkako guda irabazteko gertakunak

*LENENGO GERTAKUNA. Erderatiko itzak zabalgo andija ta zustraitkide asko izatea.*

*BIGARREN GERTAKUNA. Erderatiko itz baten ordezkotzat ikurpen edo esan-guraz antzeko baiño eztan euskerazkoa imini nai izatea.*

*IRUGARREN GERTAKUNA. Erderatiko itza ordeztzeko, euskera utsezkoa, laburra izatea.*

*LAUGARREN GERTAKUNA. Erderatiko itza ordeztzeko, euskerazko ikurpen berdiña eztaben bat, zerbait soiñuz aldatutakoa izatea (17).*

3) Hizkera artunta eta berarija delakoaren arteko bereizkuntza egin beharra:

*Onako utsuneok eta bete-uneok zeintzuk ditugun zeatzago eragertzeko, izkuntzalarijak irakasten deuskuen izkera-atalkatze egoki-egoki batek lagun egingo deusku.*

*Atalkatze ori ona emen zer dan:*

*Izkera bat mintzatzan dabeen gizonak, euren bizimodu, biargintza, opesijo, zeregin, zaletasun eta abar bidetzat artuta, pilo edo talde askotan berezi geinkez. Eta onetari-ko pilo bakoitzian batu geinkezan gizonak euren*

*alkar-arteko izkera berarija izan oi-dabe, batez-ere iztegiari jagokonez. Orrako izkera berarijook, mota askotari-koak dira: eleiz-gizonak, erlijoñoko autuetan erabili oi-daben lotsa ta errespetugarrizkotik asi ta amak ume-txuai zuzendu oi-deutsan samur eta biotzetikoragiño; fuezak auzi ta epai-arazoetan mintzatu oi-dabeen zo-rrotz, garratz eta zuzenetik asi ta ijituak euren azerikeri ta satorkerijetarako eraldurik dabeen zearkariragiño; bere baso, solo, landa, zelai, ta etxeke gauza ta arazo guztijen izenak zeatz eta garbi bereziten dituan gure baserritarrarenetik asi ta orretariko gauzen izenik umetxo batek baiño geijago jakintzeka zentzun, gogo, uste ta arima naiz gorputzari jagokoezan beste gauza gurenenak, berezi, izentau ta eragertzeko, itz bikain eta sakon guztijak buruan dituan filosofilari jakitunareneragiño; itz batez, langintza, jolasgintza, jakintza ta gizonaren beste ekin-bide orok dabe euron iztegi berariazkoa, ekin-bide bakoitz orreetan oitu ta ekandutakoak baiño ondo eza-gutzen eztabeena (18). (azpimarratua geurea da)*

4) Hizkera *berarija* edo teknikoaren ezaugarri nagusia:

*Onetariko iztegiyen zabalgoa, gorago erakutsi dogunez-beste era batera aitu bear dogu. Gorago esaten izan dogun zabalgoa, ITZArena izan da; orain aitatzen dogunau, GAUZIarena. Izkera berarizkoetan, gauzia izaten da bada beroni jagokon lagun-talde bakoitzak baiño zeatz ezagutzen eztabena (19).*

5) Hizkera berezien edo *berarija* direlakoan sailkapena:

1. LENENGO KLASETAKO IZKERA-BERARIAZKOAK

***Euskalerrijon aspalditik bertokotuta ditugun erlijio-  
notza, lan-gintza, jolas-gintza, dendaritza, etxe-ara-  
zo-gintza ta abarrerri jagokoezanak.***

2. BIGARREN KLASETAKO IZKERA-BERARIAZKOAK

***Atzerritik oraiñ agertzen jakuzan makiña, erremin-  
ta, jostailu, soiñeko ta komertzijotako naiz arezaz***

**kanpoko beste tresna ta arazo guztijai jagokoez-  
nak.**

3. IRUGARREN KLASETAKO IZKERA—BERARIAZKOAK

**Erritar arazoez goitikoak; goi-jakintzai jagokoez-  
nak.**

4. LAUGARREN KLASETAKO IZKERA—BERARIAZKOAK

**Literatura-izkeria (20).**

6) Beren beregi, guri axola zaigun *irugarren klase* horretara-  
ko zer-nolako irtenbideak:

*Orain, jakintzeetarako, latin eta griegotiko zustraijakaz, iztegi orontzako bat eraldu da ta eraltzen da; ta berau, Europa-alderdi onetako izkera orok eurontzako dabe: ba-koitzaren nortasunarentzat ezetariko beerakuntza barik, eta erritza askotako jakitunen alkar-aitzea, bide orrez, ederto erreztuten dalarik (21).*

7) Irtenbide horiek non bilatu:

*Ingeles eta aleman izkeraokin, badau gure euskera onek beste antz-alde bat ere: erromatiar izkeraraakin gramatikazko senidetasunik ez izatea; iztegi barriz, errijok alkarrekin dabeen artu-emon aundijago edo txikijagoak erasota, gure ta ingeles izkeraok askoz dira erromatiarrakin adiskideago alemanterrena dan baiño. Batez ere gureau, nai-ta-nai-ez izan bear, alde guztietatik erromatiar izkera orreez inguratutik agertzen jaku-ta (22).*

8) Labur esanda:

*Orretariko itz geijenok, eztira gitxitan baiño erriratzen; eta eleuskigu euskaldunoi ere igutiñik emon bear, gure jakintza-idazkijetan izenok oso-osorik erabilteak; eta, orretariko gauzaren batek euskeraz izen errikoia dabenean imini berau, egoki danean, bestearen alboan, beste izkeretan oi dan lez (23).*

EGUZKITZA urtebete lehenago atera zen plaza gizon hizper-  
gintza kontuetan. *Euskerara idatziaren batasuna* deritzon saio-



an bereak eta host bota zituen lemoarrak, Euskaltzaindiaren kezka eta arduetan osotoro sartuta.

Lemoarra iritzi kontuetan badirudi AZKUETarra baino gehiago, ARANATARren aldekoa dela.

Aipu luzetxoa izan arren, hona hemen haren lerroak:

14. Au egin arren be, lander asko izango da-ta, edozein erderaz adierazo leiken guztia, euskeraz be adierazo al izateko, bear dituan itz harri guztiakin ornidu ta aberastu bear da.

15. Baña askok itz barrietzaz neurria ipiñi bear dala diñoe. Nik be ori uste dot; baña neurri ori irakurri dodan lez barik, beste era batean ipiñiko neunke.

16. Antziñatik euskeran sartu yakuzan eta euskal-antz eta usaña artu daben itz arrotzak jaurtiteko asmoz, itz barriak asmaten diñardugu. Oraingo aldi au orretarako aldi ona ez dala uste dot: ori, beste zeregin andirik ez daukagunerako itxi-ta, geure egun onetitan auzotik datorriguzan itz arrotzai bidea sarratzen ekingo ba'geints-kio, euskerak askozaz geyago irabaziko leuke.

17. Onelan ba, antziñatik sartu yakuzan erdelitz zarrak bein-bein geldi itxita, gevago ta gevago sartu ez dakiguzan, euskal-itx zarrak idoro, bear diran barriak sortu ta zabaldu beitez.

18. Itz barriak sortu orduko, bearrezkoak diran ala ez astiro ta ondo begiratu bedi: edozein euskalkitan itz zarrak ba-dago, orren ordezko barririk ez da bear: itz zarra bere otsak pizkaen bat aldatuta, egokia ba litz, barria baño obe litzake; itzaren ikurpena bere otsak aldatzeka errez edatu ba-lei oster, ori egitea zurrago izango dala dirudi.

19. Itz zarrak ezpa-dago, euskal-erro ta zustrayakin barriak sortu beitez; al dala, gipuzkoar itz zarren antza emon bekioe.

20. Bear doguzan itz barri oro euskal-zustrayakin sortuten ibili barik, beste erderak artzen dabezan iturritik, be-

rein artu daikeguzala deritxat, baña euskal abotseta edo izpiakerea arrerazo ezker, itz oreik euren erea larregi aldatu ta antzik geyena galdu bear ba lebe, orrein ordezkak euskal-errotik atera obe litzake.

21. Gauza baterako itz barri asko erabilteak, naste ta kalteak baño ez lekarke-ta, zeintzuk erabili ta zeintzuk haztertu erabagiko daun Batzordea ipiñi bedi.

22. Berrogei urtez onantza, zuzen ala oker ainbat itz barri sortu dira; itz barri oneitatik asko sarri erabili dira-ta, euskaldun guztiak ez, baña askok ezagutzen dabez; aугaitik txarto eralduta dagozala argiro ikusi ezik, itz barri oneik onetsi ta artu bear doguz, euren ordezko barriagok sortuten ibili barik.

23. Euskalkien arteko alde nagosiak aditzeoak dira: aditzeo alde oneik batasunera ezin ekarri geinkez (24). (azpimarratua geurea da)

Laburki emanda ere, honetara jokatu behar EGUZKITZAREN irtenbideak zerrendatzeko:

1. Euskarak berba berriak behar ditu eta horrexegatik barneratu behar ditu hizperri guztiak.

2. Erdarara jo aurretik, lehenez euskal hitz zaharra bilatu, aurkitu eta eraginean jarri (atzizkibide eta konposizio direla medio), AZKUREN antzera. Bestelakoetan bakarrik asmatu hizperriak eta asmatzekotan ere, baietzik borobilena hizperri horrek izan behar dituen euskal erro eta sustraiei, horiek euskal ahoskeraren aldetik bete behar duten aiurria ahaztu gabe.

3. Azkenez ere, orduko bidea egina zuten hizperri asko ere onetsi eta hartu, ordezko berriagorik sortzen edo asmatzen ibili beharrean.

## 2.2. Hizperrigintza vs. euskal hitzen altxorra

### 2.2.1. Orokorrean

Irizpideak irizpide, ordua dugu ikusteko nola gorpuztu zuen abade lemoarrak urte batzuk lehenago idatzitako burubideak.

*Gizarte-aurzia*, esan legez, aukeratu dugu horren lekuko, bazter utzita EGUZKITZAREN bestelako lanak eta batez ere, haren sermoigintza, baliotsuak oso izan arren.

Zerbait esan baino lehenago, oharretan sartzeko beharra dugu. Izan ere, EGUZKITZAK berak aitortzen digunez, liburu hori idazteko orduan ez zuen, ez, goi mailako jakituriaren eskuliburu bat egiteko asmorik, ezpada sasoi hartako Elizak gizarte auzi eta katramiletan zeukan doktrina erakusteko nahia. Jomuga hori azaleratzen digu EGUZKITZAK liburuaren hasieran:

*Origaitik asi nintzan. Gure lugin, arrantzale ta alogereko asko be gizartekeriaren sarietan jausteko arriskuan; bear bada, beste inoz baino arrisku andiangoan egozala ta, andi-andiak al bait lasterren azaltzeko asmuz eldi neutsan arlo oni (25).*

Garai hartan *propagandista* deitura hartu zuten abade katoliko eta euskaldunen aldra horretatik ere ez da oso urrun ibiliko, beraz, gure lemoarra.

Esanak esan eta idatziak idatzi, EGUZKITZAK aurre egin behar izan zion hitzen arazo larriari. Larrugorritan baino, euskara lorratze eta kimutze garaian zebilen. Horretan ere, laguntzaile izan genuen EGUZKITZA gizarte zientzietan.

Premia larriak ere bazirela esan dugu eta irtenbideak ere horrelakoak izan zirela azpimarratu behar.

Adieraziak ditugu EGUZKITZAREN irizpide eta aburuak. Ikus dezagun orain, zein modutan aplikatzen zituen berak halakoak idazte kontuetan.

## 2.2.2. Arloz arlo

Lehendabizikoa azaldu eta gero, hurrengo pausoa emateko tenorean gaude. Irizpideak orokorrean azaldu eta horien aplikazioa ere zehaztu dugu EGUZKITZAREN kasuan, arloz arloko xehetasunak falta baditugu ere.

Arlo batzuk aukeran. Honako hauek, hain zuzen ere: **antolakuntza juridiko-politiko**a, **ondasunak**, **kapitala**, **lana**, **kontratuak eta elkarteak**, **gainerakoak eta esakuneak**.

## 2.2.2.1. Antolakuntza juridiko-politiko

EGUZKITZARI gizarte auziak ardura berezia ematen dio. Gizarte auzi horretan, jakina, alboraezina gertatzen zaio gizarte horrek bere buruari ematen dion antolakuntza moldean.

Horren izendapenean **askatasuna** erabiltzen badu ere, **libertatea** ez du alboratzen. Haatik, askatasun hori **autarki** edo **botoen** bidez adierazten da gerokoan ere **Batzar Nausia** delakoa-ren biltzeko direnak.

Honetarako **erri-agintariak** izan daitezke **errege** edo **errijaurgoa** edota, sasoi hartan aldarrikatu zena berrartuz, **erkala** eta **erkalmen** direlakoak.

Erregeren zerbitzaria **bakaltseina** da, **erkaltseina** errepublikarena den bezain beste.

**Erriketa-askatasunari** dagokio **estadua** zein honen sinonimotzat erabiltzen den **gizabatz**a. Azkenean ere, **jaurbide**, **jaurgo**, **jaurkera** ditugu hortxe, egun sarri erabiltzen dugun **jaurbidetik** gertu.

Agintaritza moldatzerakoan, zuzenbidea dugu lana bera. Legeak sortzeko **lege-etxea** eta lege garrantzizko batzuk ere **oinarri-legeak** nahiz **lege aldaezinak** ditugu. **Oiturazko legea** ere tartekoa zaigu.

Bide beretik ere, norbanakoak dituen **eskubide** eta **zuzenak** dira hortxe.

**Zuzen** motez badihardugu, zuzena **adiñon zuzena** eta **gizarteko zuzena** izan daiteke eta zuzenbidea ere, **alkarregazko zuzenbidea** nahiz **legezko zuzenbidea**.

Ideologiak, berebat, EGUZKITZAREN luma zorrotzaren idazgai dira liburu honetan. **Alkargokeria, gizartekeria, baltsakeria, gizarte-gazea, gizartekeria-gazia.**

Ikusten denez, gehienak betiko euskal hitzak dira, eginkizun berrietara egokitu eta hizperri batzuekin erkatuak.

#### *2.2.2.2 Ondasunak*

EGUZKITZAK bi aldarte erakusten ditu ondasun kontuetan. **Ondasunak** euren bakarrean hartuta, **ondasun** zeretik abiatuta eraikitzen ditu, berbatxo horri, hau da, **ondasun** deituriko horri, euskal atzizkibidea ezarriz.

Horietan ere haren pentsamenduaren muina bete-betean erakusten da; esaterako, **ondasunetgia**.

Hortik dator, etorri ere, beste adiera-multzo batzuen euskaratztea; horrela, **ondasunetzazko bakoizkeria** edo **ondasunetzazko bardintza**.

Bestera bada ere, badaki lemoarrak zer egin ondasunak modu antolatu eta organikoan agertzen diren horietan. Euskal jatorrizko berba eskura du EGUZKITZAK. Erabili ere, horrela egiten du, irakurle euskaldunak ohiko dituen **aziendatxoa, etxagun, etxaguntza** eta **etxaldea** lerro nagusietan tartekatuz.

Beraz, bi eduki arteko tenka bizia, beti ere, euskarari buruz duen filosofiaren bidetik.

#### *2.2.2.3. Kapitala*

Gizarte auzian, lehen eta orain ere, oinarrizko eta funtsezko izaera du, ezbairik gabe, produkzio eta ekoizpen munduak.

Gure lekeitiar ordeak enpresa giroko elementu eta osagarriak erabiltzeko tenorean ikusi zuen bere burua.

Abiaduran, argi izanik ere, berba zaharra aukeratu zuen EGUZKITZAK. **Domu** hitza izango da horixe.

Aldera dezagun, unetxo batez bada ere, AZKUEREN argibidea hitz horri buruz:

**Domu:** 1º (B-b-beg-g-mu), capital de dinero, *capital en argent*. EZ KORRIDURIK, EZ DOMURIK EZTABE IKUSIKO, MOLOKOT EGINGO DEUTSE-TA: no verán ni interés ni capital, pues les harán bancarrota; *ils ne reverront ni intérêts ni capital, car on leur fera banqueroute*— 2º (B-mu-ord-ts), coste de un objeto: *coût, valeur d'une chose* (26).

**Domu** honen proposamenak ez zuen gerogarrenean aurrera-biderik izan. Haatik, hona hemen berak sortuko dituen beste adierak, euskararen atzizkibide, nominalizazio eta hitz-konposaketa orpoz orpo erabiliz:

<b>Domu</b>	Domudun
	Domutze
	Domu-etekin
	Domu-garazki
	Domu-garazkidun

#### 2.2.2.4. Lana

Gizarte auzian kapitalak garrantzia badu ere, ez da hori baino gutxiagokoa lanaren izatea eta eragina.

EGUZKITZAK badu honetarako elerik egokiena: *lana*. Horren inguruan sortzen ditu sortu beharrekoak, lehen adierazi teknika berberak konbinatuz:

<b>Lan</b>	Lanartun
	Lan-artzale
	Lan-garazki
	Langile
	Langileen alkargo
	Langilezale
	Langilen batz-okokor

### 2.2.2.5. Kontratuak eta elkarteak

Gure begirada laburtxo honi bukaera emateko, hona hemen beste oharra, bizigiro eta bizimodu ekonomikoarekin hertsiki lotua.

Izan ere, **garatz** hitza du euskarriztat EGUZKITZAK, **negozioa** edo merkatari izaera adierazteko. Hortik dator **garazkide** eta **garatz-baltzuak**.

Hitza, halere, ez da hotza, AZKUEK dioskuna aintzat hartu nahi izanez gero:

**Garatz:** 3º (B-mu-ts), negozio: *négoce, commerce*. GARATZ ANDIAK, grandes negocios, *grandes affaires* (27).

Hala nahita, lemoarrak eguneroko harremanak bideratzen dituen alderdien arteko itun eta akordioak **kontratuak** baino, **egiuneak** ikusten ditu, bizkaierazko berba zaharra berriro ere erabiliz.

Hortik erakartzen ditu, bide beretik, **aloger-egiunea** eta **baltzu-egiunea**.

### 2.2.2.6. Gainerakoak

EGUZKITZAK, azkenez ere, bestelako berba zehatzak erabiltzen ditu testuinguru horretan, hala nola, **alogerako, gozamena, maister, petxu, tokamena, uria**. Aspalditik euskararen altxor-rean daudenak eta, bestetik ere, kanpotik zuzenean mailegatuak. Horra hor, nahiz eta gutxitan agertu, **kolboz** eta **dum-ping**. Lehenengoari euskal azalpena ematen dio segituan: **base-rritar-batza**. Bigarrena bere horretan uzten du.

### 2.2.2.7. Esakuneak

EGUZKITZAK hitzak ez ezik, esakune eta esakerak ere ditu maitte. Horrexegatik liberalen esakune famatu hura **laissez faire, laissez passer** euskaraturik ematen digu: **egiten itxi, igaroten itxi**.

Edu berean, era-erara datozkion euskal errefracioak ez ditu alboratu. Horra hor, **Bakotxari berea, orixe da zuzenbidea.**

### 3. Azkenekoak

Hasieran esandakoa berretsiz, hiruzpalau ondorio nagusi plazaratu ditzakegu, EGUZKITZAREN hizperrigintzaren inguruan:

A) Ikusmira garaikide batetik abiatuta, haren egina ezin inondik ere bideratu egunotako premietan baliogarri izateko.

B) Bestetik begiratuta, ostera, badago zeresanik EGUZKITZAREN lanari buruz:

B1) Izan ere, EGUZKITZARENA aitzindari lana izan zen, halako gai bereziak (soziologia, zuzenbidea, ekonomia) euskaraz eman zituelarik.

B2) Emate horretan, argi dago aldi hartan puri-purian zeuden hizkuntza-irizpideak erabili zituela. Erabilera hori ez zuen, hala ere, besterik gabe ondu eta moldatu.

B3) Irizpideok irizpide, EGUZKITZAK hizkuntzari berari eman zion lehentasuna, berba zaharrak eta euskalkietakoak berarrartuz, hizperri arrotzen gainetik.

B4) EGUZKITZAREN lanak, bestetik ere, sistematizaziorako joera erakutsi zuen, jakintzagai askoren kontzeptuak osotora ematera bideratu baitzuen bere ahalegina, kontzeptu horiek bere irakurleei adierazteko premia zuen neurrian.

Azken batean, EGUZKITZAREN lanak garai bateko lekukotza eta eskarmentua dakartzkigu. Horietan, hain zuzen ere, erdietsi ditzake lemoarrak gure jakin-mina eta gogoa.

### 4.- Lexiko euskara-gaztelera

#### 4.1. Oharrak

EGUZKITZAREN hitzak bere horretan ematen digu, sarri askotan berak letra etzanez jartzen zuen erderazko sinonimoen alboan jarritik. Hitz bakoitzaren hurrenkeran, testuingurua ere ematen



da, besterik gabe argitua izan dadin non eta nola erabili duen lemoarrak. Bukatzeko, esan dezagun hitz bakoitzaren aldame-  
nean ezartzen diren zenbakiak, kapituluari (zenbaki erromata-  
rrez) eta orrialdeari (zenbaki arabiarrez) dagozkiola. Aipame-  
nak liburu honetatik egiten dira: J. B. Eguzkitza *Gizarte-auzia*,  
Klasikoak 42. Euskal Editoreen Elkarte 1990. Zarautz. Erdaraz-  
ko zein euskarazko sinonimoak honetara ematen ditugu: (*sin.*).

#### 4.2. *Gizarte-auzia*, hiztegi berezitua

**agintari:** sozialistak ekarri nai dauzkuen estadu barrian, erle nagien  
ideko agintari, jawrle ta onein ordezeko enpleauak izango litzakez  
(XXI, 106).

**aldin:** edozein gauzak —ziñoan MARXek— aldin edo balio bi ditu:  
dana dalako gauza horrek erabiliteko daukan balioa, ta beste zer-  
baiten ordez truketako nai diru-ordez saltzeko daukana (XI, 65),  
balio (*sin.*).

**truketako aldina:** Truketako aldiña edo valor en cambio deritxoena  
langilearen lanetik bakarrik datorrela, ... (XI, 68).

**aldun:** orixegatik daukez oneik ainbeste aldun edo diputadu Ma-  
dril'go Lege etxean (XXIV, 119), diputadu (*sin.*).

**alkargo:** baña zuen alkargo edo gremio orreik legeak il ditu ta au-  
rrerantzean ezin bizi daitezke (V, 38), gremio (*sin.*).

**alkargo-batzarra:** banandutako atal batzuk batu ziren eta enderri-  
tarteke Alkargo-Batzarren izenaz, Amsterdam'en daukoz bere er-  
doki ta egoitza (XIV, 79).

**alkargokeria:** Asmu ta elburua onak izan direnean, alkargo orreik  
on eta mesederik asko ekarri dabez; baña orainsu agertu yakun  
alkargokeria (sindikalismoa) (*sin.*), ori baño besterik da: onen as-  
mu ta elburua eztira onak, ez gitxiagorik be (XVII, 89).

**aloger aldakorra:** Au dala ta, euren garatzetan, escala móvil deri-  
txoen aloger aldakorra ipiñi dabe an, or, emen ugazaba batzuk,  
garatzaren trabaziak gora doazenean... (XXIX, 137).

**alogereko:** aurrerago ugazaba lez euren kontura lanean ziarduen  
askok, ezin jarraitu izan eben, eta euren buruak, nai ta ez, aloge-  
reko egin bearra etorri yaken (V, 39).

**anaidea:** kai bakotxeke arrantzaleak aspaldian be euren anaidea  
dauke. Anaidiok gaur be antxiñako erara dabiltz (Amaya, 167).

**arpideak:** *lan bako orrei jaten emoteko Aldundi ta Udalai dirua eskatu yake ta arptideak be idegi dira (XXX, 143).*

**askatasun:** *edozelako ogasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen jabetzea gizon bakotxari kendu, onen eskubideak trāusi, askatasun edo libertadea be moztu... (XVIII, 93), libertadea (sin.).*

**autarki:** *augaitik, geldi-geldika, geyenen eretxiz eta autarkien bidez orra elitzeko asmua darakusen sozialistak (IX, 58).*

**auteskunde:** *auteskundeetan arrokeriaz milaka ogerlekoak jaurri arren, ardura gitxi (VI, 45).*

**aziendatxua:** *gero, bere ondasuna, bere aziendatxua geitzeko itxaropen eta almena be errotik ebagi (XXXVIII, 134).*

**azkurritegi:** *Langilezañen azkurritegi edo abazerietan jukiak be erosi bear (XXX, 142), abazeri (sin.).*

**bakaltseña:** *England'an gizartekeri-zale alderdiaren buru Ramsay Macdonald bakaltseña da (XV, 81).*

**baltsan:** *onein eretxiz baltsan lan egitera ta baltsan bizitera jo bear da (I, 28).*

**baltsakeria:** *gizartekeri ta baltsakeriak bide bat eta bardiña ezlaroe (I, 28).*

**batzar nausia:** *Langileak udkapen ori entzunaz etziran natkotu: Batzar Nausira jo eben, len lez alkartuta lan egiteko eskubidearen eske (V, 38).*

**batzorde:** *Trade Unions deritxon bazkuneak batzorde bat izentau eban (V, 39).*

**batzorde eragilea:** *batzorde eragilerako be sozialista ezagun onexek autu ebazan batzarrak (XXIV, 120).*

**bazkuna:** *Gipuzkoa'ko nekazariak olakoxe Bazkun edo Alkartasuna egin dabe (XXIV, 120), alkartasuna (sin.).*

**bazkuneak:** *Trade Unions deritxon bazkuneak batzorde bat izentau eban (V, 39).*

**burkideak:** *alkargo orreitan sartu nai ezeben burkideak, beste ola ta lantegi-jabeak, indarrez azpiratu ta zabaltzeko egin eben lenengo burrukaldia (V, 40).*

**domu:** *luzaroan be —diño XI'gn. Pi Aita Santuak— domu edo kapitalak onura larregi lortu dau (VI, 44).*

**domudun:** *Eta ori baño be txarrago dana —esaten eban—, salneurri-gañok domudunen eskuetara doaz beti (XII, 71).*

**domudunak:** *Ori ta guzti be, domudunak, ola-jauri, lantegi-jabe ta salerosleak irabazpen gizenak lotu ta diruiza andiak egin daroetz (XII, 69).*

**domutzea:** *Ola ta lantegi andiak ipiñi ta erabilteko bear den domutzea, sakel askotako diru izan oi da ta, irabaziak be askoren eskuetara doaz (XIII, 74).*

**domu-biltze:** *ondasunetzazko lege aldatu ezin baten bidez domu-biltze guztia aberatsen alde zala ta... (VI, 44).*

**domu-etekin:** *Macdonald'en baldintzen antzekoekin domu-etekin ez biziteko ta jarauntsiz zerbatien jabe egiteko eskubideak be aurtzen ditu (XV, 85).*

**domu-garazkiak:** *lan garazkiok sortuaz batera, beste ainbeste domu-garazki, bardiñean ta zozkeraz, sakeleratu begiz garatz-batzuak (XXIX, 140).*

**domu-garazkiduna:** *lan garazkiok euroen jabeai domu-garazkidunen eskubideak bekarsoez batzar-nagusi ta beste arazo batzuetan (XXIX, 140).*

**egiunea:** *baña estaduak baserritarraikin ainbat urterako egiunea edo kontratua egin al izango leuke (XXIII, 117), kontratua (sin.).*

**aloger-egiunea:** *oraingo gizabatzen izakera ta bizikera aintzat ardurik, aloger-egiune edo kontratu ori, baltzu-egiunearen bidez, albestean leundu ta gozatuko balitz (XXIX, 138).*

**baltzu-egiunea:** *oraingo gizabatzen izakera ta bizikera aintzat ardurik, aloger-egiune edo kontratu ori, baltzu-egiunearen bidez, albestean leundu ta gozatuko balitz (XXIX, 138).*

**enderritarteko bazpatzak:** *langileen alkargo onei enderritarteko bazpatzak deritxoegu (XIV, 78).*

**eralgi:** *beste langilea arduratsu ta begiratuagoa da: bear-bearrekoa baño eztau eralgi nai (XXVIII, 135).*

**erkal:** *onelan erkal edo erri-jaurgoa usteldu ta zapalduaz, gizaseme guztiak estadu orren morroi ta jopu errukari egiten dira (XVII, 89), erri-jaurgo (sin.).*

**erkala:** sozialisten asmu ta eretsiak aurrera eroan ezkeru, barriro be orraxe joko geuke ta erkalaren, demokraziaren izenean astakeri galantak egiteko bidean gengokez (XIX, 98), demokrazia (sin.).

**erkalmen:** erkalmen edo erri-jaurgo andi ta bikaña, *De los Rios ek nai leuken gizartekeriaren elburua orixe ei da* (XV, 85), erri-jaurgo (sin.).

**erkaltsein:** asmu ta elburu bardiñak daukez eta gure elkartsein edo ministroak orain arte egin dabena, guzitok ontzat emoten dogu (XXIV, 120), ministroa (sin.).

**errege:** aitaturiko erregeok orretarako biderik emon ezpalebe (IV, 36).

**errenta:** errenten goraberea dala ta; Madril'go agintariak, baserrietako maizterrai azken urteokaz ugazabak, zio berezi barik, jaso dausen etxe-errentea... (XXIV, 119).

**erri-agintariak:** ugazaba ta langileen arteko auzi honetan erri-agintariak eztabela sartu behar irakatsi dabe (XXXI, 145).

**erri-jaurgo:** erri-jaurgo edo errepublikea bai, baña agintaritza nagusi ta guzti (X, 58).

**erriketa-askatasuna:** bestera, aukeramen ori sendoagotu egin bear ei da, erriketa-askatasunari ogasun-jabetzeak dakarrena erantsiz (XV, 83).

**eskubide:** gizon bakotxak, gizartetik barik, bere izartetik datorkiozan eskubide ta zuzenak daukaz (XIX, 97).

**eskubide eta zuzenak:** eskubide eta zuzenok obeto zaintzearren, eskubide orrei sendoaroago eustearren, orrexegatik doa gizona gizarteko bizitzara (XIX, 97).

**estadua:** lur-sail guztien jabe estadua zan (II, 29).

**etxagun:** baña oraingo maizterrak eleukez etxagun egingo, etxaguntzea ta gizartekeria ura ta sua baño geyago alkatu ezin lekezan gauzak dira ta (XXVIII, 117).

**etxaguntza:** inorena ostuaz etxaguntzak eurekandu dabegan etxagunok, lurralren benetako ugazaba dan gizarteari itzuli ta biurtu bear dautsez (XXVIII, 116).

**etxaldea:** Etxagun izan nai leukela ta, urte batzuen buruan aurreratu dauanaz etxaldea erosten dau ta etxagun egiten da (XXVIII, 135).

**Eusko Langile Batza:** *gaur indartsuena dan Eusko Langile Batza, beronen bazkideak geituaz, dan baño be sendoagoa egitea* (Ama-ya, 168).

**gaikeri-atsa:** *egia esateko, jakintza-usaia baño gaikeri-atsa (materialismo-atsa) ugariago darioe jaun orrein liburuei* (X, 61), materialismo-atsa (sin.).

**garatz:** *garatz edo negozio andiak erabili dabezan gizonak* (V, 41).

**garatz-baltzuak:** *noiz edo bein garatz-baltzua apurtu ta banatzeren baletor, aren ogasunak bere aburuz zelan banandu leikezan be, uzaltzen dau Pottier jaunak* (XXIV, 140).

**garazkide:** *urte batzuen buruan, langile ta garazkide (akzionista) egingo balira ta aurrerantzean irabazi bikotxa, langile ta jabeak lez dagokien irabazia, eskuratuko balebe* (VII, 49), akzionista (sin.).

**gizabatz:** *gizon bakotxaren eskubideak geyago edo gitxiago moztu, eta gizabatzarenak edo estaduarenak sendoagotzea* (VIII, 53).

**gizartekeria:** *Nire eretziz, sozialismoari euskeraz «gizartekeria» eretxi gegikeo. Izan be, erderazko «sociedad» euskeraz «gizartea» da. Sozialistak ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe gizartea egin nai dabe. gizonok geure gauzetan daukagun jabetasuna, bakotxari kendu ta gizarteari emon nai dautse: gizon bakotxa kapustu ta gizartea aberastu nahi ei dabe: baño ori egitea — geroago esango dogunez— gizon bakotzentzat ezeze gizartearentzat be kaltegarri izango litzake. Beste aldetik edozelako egite txar eta kaltegarriak kerri atzizkiak adierazten doguz euskaldunok: nagikeri, ordikeri, ustelkeri ta abar: beraz sozialismoak lurreko ondasun gizonentzat kaltegarri izango litzakelako, sozialismoari euskeraz «gizartekeria» eretxi gegikeo* (I, 27 eta 28).

**gizartekeri gazea:** *Gizartekeri gazarik, ba ete dago?* (XV, 81).

**gizartelari:** *bakerako ta lanari gogozago ekiteko biderik onena orixe dala uste dabe gizartelari ospetsu askok* (XXIX, 139).

**gozamina:** *sati bakotxa erabilanak, orren gozamina baño beste eskubiderik ez eukan* (II, 29).

**jabe:** *lur-sail guztien jabe estadua zan* (II, 29).

**jabetza:** *lurreko ondasunen jauntza edo jabetzea gizonen artean bardin bananduko balitz be* (VIII, 54).

**guzur-jabetza:** lapurretaz eskuraturiko guzur-jabetzarik eztagoanik eztiñogu (XXVIII, 134).

**jaurbide:** eta gudarien jaurbide gogorpean hizi ziran gizon eta emakume guztiak (II, 30).

**jaurgo:** baña guztien buru izango dan jaurgo ta agintaritzza barik (IX, 58).

**jaurkera:** holtxebikiak nagusi egin ziranetik ona, Errusi'n tru jaurkera edo gobernu-klase izan dabez (XXV, 122), gobernu-klase (sin.).

**jopu:** orain be gizartean baltsakeria nausituko balitz, jopu edo erki-jopu askok izan beharko leukie (II, 29).

**joputza:** beargiñen lana alogeraz ordaintzea, okerkeri andia ta langile gaxoak joputza errukarran eukiteko bidea dala diñoe sozialisten buruak (XXVIII, 133).

**lanartun:** ugazaba, lanartun eta langilezañak, guztiak nai izan dabe al bait lasterren aberastu (XXX, 143).

**lan-artzaille:** itx gutxitan esateko, lan-artzaille ta langile batera izan etu bici dagokiezan irabaziak eskuratu (XV, 86).

**lan-gararazkia:** langilearen kopuru ta mozkiñok domu-garazkiaren baitora eldu daitezanean, olako langileari bere lan-garazkia ezarri ta emon bekio (XXIV, 140).

**langile:** lan-artzaille ta langile batera izan eta bici dagokiezan irabaziak eskuratu (XV, 86).

**langileen alkargo:** langileen alkargo onei enderritarteko bazpatzak deritxoegu (XIV, 78).

**langilen batz-orokorra:** España'tik Langileen Batz-Orokorra da ango bazkide (XIV, 79).

**langilezañak:** ugazaba, lanartun eta langilezañak, guztiak nai dabe al bait lasterren aberastea (XXX, 143).

**larimia:** artu dauan larimiña edo anega-gari bakotxean lenengo nekaraziak bigarrenak baño birritan be lan-indar geyago sartu dauala (XI, 66).

**lege aldaeziañak:** guikeri-zuleen eretxiz, gizartea be olantxe, indar itsuak, lege aldaeziañak darabile (X, 62).

**oiturazko legea:** antxiñako euskaldunak ori galarazteko oiturazko legea eukela diñosku Zamakola'k (VIII, 51).

**oñarri-legeak:** *Likurgo-ren oñarri-legeak ogela emeretzi mila ataletan zatitu ebazan ango lurrak* (II, 29).

**lege etxea:** *Lege-etxean autarki edo indarrik geyen daukenak agindu dagiena, indar ori asto-indarra balitz be, legea izango ete litzake?* (XIX, 99).

**mailegatu:** *diru etxeai nai domudunai dirua eskatu, euneko onenbeste edo ainbestean mailegatu, lanak euren kontura artu ta egin* (XV, 86).

**maister:** *ugazabari berea emon eta baserritar maister bakotxari bizi dan etxearen eta darabilan bazterraren jabe egin daiten* (VII, 51).

**maizter:** *estaduaren maizter edo errentadore izan bearko leukien baserritarrak* (XXV, 121), errentadore (*sin.*).

**maiztertu:** *baña maiztertzea be galerazo bear dan gauzea dala ta,...* (XXV, 121).

**mayordomua:** *agintari-ordekoak oraingo mayordumo en auzeko, ta baserritarrak orrein menpeko* (XXIII, 116).

**ogasun ekarkor:** *ogasun ekarkor guztien jabe, lurralde bakotxean, bertoko gizabatza egin nai leukie komunistak* (I, 28).

**ondasun-arau eta legeak:** *baña gizarteko ondasun-arau ta legeak orrantz jo dabela be ukatu ezin leiken gauzea da* (VI, 44).

**ondasunen jauntza edo jabetza:** *au dala ta, lurreko ondasunen jauntza edo jabetzea gizonen artean bardin bananduko balitz be,...* (VIII, 54).

**ondasunen jaurkera:** *gauzak nai ta ez aldatu egin bear zirala ta, Nep izenaz dazaugun ondasunen jaurkera barria nausitu zan Errusi'n* (XXV, 122).

**ondasunetan daukan nauskeria:** *bere oñarria ondasunetan daukan nauskeria (erderaz dictadura económica deritxoena)* (V, 40).

**ondasuntegia:** *osoro ornidua izan nai badozu, zoaz dakazuzan ondasunak salduta, txiroai emoyezuz eta ondasuntegia zeruan eukiko dozu* (III, 32).

**ondasunetzazko bakoizkeria:** *baña gizartekeri ta baltsakeria berariz eta batez be ondasunetzazko bakoizkeriak (erderaz individualismo económico deritxoenak), onexek ekarri ditu* (V, 37), *indidualismo económico (sin.)*.

**ondasunetzazko bardintza:** *ondasunetzazko bardintza ori gizartean indarrez sartu bear zala ta, astakeri ta gaiztakeri asko egin ebezan batzuk eta besteak* (III, 33).

**oporketa:** *ogibide guztietako langileak, guztiak balera, oporketara jauarti, naste ta matxinadak sortu,...* (XVII, 91).

**porrot egin:** *garatzak, porrot egin barik, emon ezin leikezan besteko alogerak eskatzea* (XXVII, 130).

**petxu:** *oraingo zergari edo petxu-batzaileak zelakoak diran badakigu* (XXIII, 116).

**salneurri-gain:** *salneurri-gain edo plus valia guztiak —ziñoan Marx'ek— ugazabak malmuzkeriz eskuratzen dabez* (XIII, 73), plus valia (*sin.*)

**salneurri-gañok:** *eta ori baño be txarrago danu —esaten eban—, salneurri-gañok domudunen eskuetara doaz* (XII, 71).

**sendi:** *sendi askok alkartuta, uria egiten dabe* (XVIII, 96).

**sendi-aloger:** *baña langilerik zintzoenak be sarritan bere lanaz irabazi agiana baño beste etorririk eztauko ta, langilearen alogerak bera ta bere sendia elikatu, jantzi ta erabilteko lagin izan bear dau. Sendi-alogera orrexeri deritxogu* (XXIII, 153).

**tokamen:** *ugazaben domuari ta beargiñen lanari, bakotzari bere tokamena zeutz emon bear yako* (XXIX, 137).

**ugazaba:** *onelan langile gaxoak estaduaren ta ugazaba aberatsen aurrez-aur zatituta, bananduta aurkitu ziran* (V, 38).

**uria:** *sendi askok alkartuta, uria egiten dabe, uri askok, bala-besteuz alkartu ta guztientzat agintaritza bat ipiñiaz, estadia egin daroe* (XVIII, 96).

**zergari edo petxu-biltzailea:** *oraingo zergari edo petxu-batzaileak zelakoak diran badakigu* (XXIII, 116).

**muga-zergak:** *sendi-alogeri inongo langileri errukiz baño etxakola zor diñoen morroi diruzaleok, muga-zergak jaso egin bear dirala ta garraxika dabilzanok, orrexek dira* (XXXIII, 155).



**zuzena:** *bakotxaren zuzenak ostikopean dirala ta legea askoren kas-ketaldi baño eziala...* (XIX, 99).

**adiñon zuzena:** *ogibide ta zeregin guztietako alogerak, lugintza, ola-ekintza, saleroste ta enparauetako irabaziak, adiñon zuzenez alkaru bear litzakez* (XXVII, 131).

**gizarteko zuzena:** *gizarteko zuzenaren alde dago Eleizea. Bakotxari berea, orixe da zuzenbidea* (XIX, 99).

**zuzenbidea:** *onelan zuzenbide guztien iturburutzat dauken estadia, gizonaren jabe oso egiten dabe sozialistak* (XIX, 98).

**alkargazko zuzenbidea:** *alkargazko zuzenbide zorrotz ori ausi dagiana, aurrekoagaz zorrean dago* (XXXIV, 157).

**legezko zuzenbidea:** *aloger au agintariak legearen bidez mugatu eta izentauko balebe, orduan legezko zuzenbidez be zor tzango litzate* (XXXIV, 158).

#### Kanpoko hitzak

**kolhoz:** *orain Errusi n iru eratako kolhoz edo baserritar-batzar ei dagoz* (XXV, 123), *baserritar-batzar (sin.)*.

**dumping:** *an garia ugari egon dala beste estadiuei egin dautsen Dumping orregaz argiro erakutsi dabe* (XXVI, 125).

#### Esaerak

«**Egiten itxi, igaroten itxi:**» *«Egiten itxi, igaroten itxi», auzia berez ebatzi daiten* (IV, 37).

«**Bakoxari berea, orixe da zuzenbidea:**» *Bakoxari berea, orixe da zuzenbidea; baña bakotxari berea emoteko, gizonari, bereak dituan eskubide ta zuzenok ezautu ta emon bear yakoz* (XIX, 97).

## 5. Ohartegia

- (1) MIKEL ZARATE, *Bizkaitko euskal idazleak (1580-1968)*, Argitaratzailea: Derioko Seminario Ikastetxea, 1970, 166. or.
- (2) LUIS VILLASANTE, *Historia de la literatura vasca*, 2ª edición, Editorial Aranzazu, 1979, 362 or.
- (3) ERKIAGA, *Euskera* aldizkaria, 1975, 229. or.
- (4) ORIXE, *Euskal Literaturaren Atze edo Edesti Laburra*, Euskal Etnalea, 17, 1927.
- (5) Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», XVIII-1, 1984; Inés Pagola, *Neologismos en los Juegos Florales*, 58 eta 59. orr.
- (6) Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», XVIII-1, 1984; Inés Pagola, *Neologismos en los Juegos Florales*, 62.etik 141.era arteko. orr.
- (7) SABINO ARANA, *Obra osoak: «Umiaren lenengo aizkidia»*, 1061. or. eta ondorengoak.
- (8) INÉS PAGOLA HERNÁNDEZ, *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Tomos I y II, UPV, Gasteiz, 1987-1988.
- (9) *Euskera* aldizkaria, I. urtea, II. zb., 1919-1920, 2. atala: III<sup>en</sup> ITZ BERRIKA, 89. or. eta ondorengoak.
- (10) JOSÉ JAVIER GRANJA, *La obra y las ideas de Federico Belaustegi-goitia* in *Federico Belaustegi-goitia (1876-1947)*, 92. or.
- (11) JOSÉ JAVIER GRANJA, *La obra y las ideas de Federico Belaustegi-goitia* in *Federico Belaustegi-goitia (1876-1947)*, 93. or.
- (12) *Euskera* aldizkaria, I. urtea, II. zb., 2. atala, 1919-1920, 63 eta 64. orr.
- (13) *Euskera* aldizkaria, XI. urtea, I. zb., 1930, *Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas*, 72 eta 73. orr.
- (14) *Euskera* aldizkaria, VIII. urtea, I-II zb., 1927, 36. or.
- (15) *Euskera* aldizkaria, IX. urtea, III zb., 1928, IZPERRIAK ERATZEKO, 190. or. eta ondorengoak.
- (16) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIAK, 81. or.

- (17) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 82, 83 eta 84. orr.
- (18) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 85 eta 86. orr.
- (19) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 86. orr.
- (20) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 86.etik 91.era arteko. orr.
- (21) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 89. orr.
- (22) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 89. orr.
- (23) Tercer Congreso de Estudios Vascos, San Sebastián, 1923, EUSKEL-ITZ BARRIJAK, 91. orr.
- (24) *Euskera* aldizkaria, 1922, EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA, 119 eta 120 orr.
- (25) EGUZKITZA, *Gizarte-auzia*, Klasikoak 42, Euskal Editoreen Elkarte, 1990 Zarautz, 25. orr.
- (26) R. M<sup>a</sup> DE AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 359. orr.
- (27) R. M<sup>a</sup> DE AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 482. orr.

*Andres Urrutia*